

¿BA ala BAI?

I

EUSKERA agerkarijaren azkenengo zenbakijan, Eguzkitza gure adiskide ta lankidearen idatz-lan bat agertu da.

Idatz-lan oretan, BAI ta EZ itz edo izkijok, aditz-iribijatu aurean zelan imini bear diriango bere erezija azaltzen deusku Eguzkitza jaunak.

Nire gaurko lantxu onek, Eguzkitza-renaren puntu bateri baiño ezteutso ikutuko: 4gn. idatz-atalean aifaitzen dabenari.

Berton, euskerazko esakun sortatxo bat iminien deusku. Esakun oreetatik batzuk BAI itza, olantxerik, oso-osorik agertzen dabe; beste batzuk BA tan laburtuta. Ta idatz-atalori amaitzeko, auxe itantzen dau Eguzkitzak: «¿Zergaitik esan bear ete-dogu batzuetan onelan, ete urengoan bestera... ikurpen bardiña dauan itza, era bifara idazten dogularik?»

Lenengo, Eguzkitzaren ifaun onek, amaikeran, egija eztan gauzatxu bat emoten dau aintzat, nire ustez. Eta oker orixe eragertzea, onuragarizko dirudi, gai oretan Eguzkitzaren eretxiko diranentzat.

Gero, gure adiskide onak, bere ifaun ofi, ezteutso erantzuten, aurez-aure beintzat; baiña 3gn. idatz-atalean diñoana ikusiña, auxe edo dirudi: bere ustez, batzuetan BA ta beste batzuetan BAI iminfe oren zegaitija, fonetitako lege edo ekanduetan edo, aurkitzen dala.

Eta au ezin artu giñei egitzat. Berak, 3gn. idatz-atal oretako esakuneen bidez agertzen deuskuzan letra

-galtze naiz letra-aldaketak (*noK Diño* ren ordez *no-Tiño*, *noK Daki* ren ordez *noTaki*, ta abar) oreik bai, jakiña, euskal-fonetikatiko lege edo ekanduai jañaituzkoak dira; oregaiñik, *noK* itzak, *notaki* esakunean galtzen daben K letria, garbi agertzen dau *noK ekijan* esakunean: emen ezin ezari lei, goragokoan K letria uxatzeko indar egin daben fonetika-lege, ez beste antzekorik-eta. Aditz-iribijatu aurreko BA izkija bañiz, onan, I letria barik agertzeko, eztau ezetariko fonetika-legek beartu edo erasoten; *BAI-dator* naiz *BA-dator*, *BAI-naz* ala *BA-naz*, bardin dira fonetikiari (esateko eñez-gaiztasunari) dagokionez.

Ezta ba fonetikazkoa, batzuetan BAI eta beste batzuetan BA erabilñera beartzen gaiñuan erasote-indara. Erantzuteka geratzen da beraz (diñogu bañiro ere), Eguzkitza-ren idatz-lanean, berak oreñi buruz egiñiko iñfauna. Guk gure onetan, alegin egingo dogu utñ-une ori ere beteten.

II

Euren esate-indara edo azentua, aditzaren *baietz-tasunean* daroien esakunak, batzuk, *baietz-tasun* ori, gogorago edo indarkorago agertzen dabe beste batzuk baiño.

Ona emen erderazko esakun bat:

(A) «Señores, es tarde y *me voy*».

Esakun onen azentu-unea, jakiña, aditzaren *baietz-tasunean* dago; au garbi ikusteko imini daigun esakun ber-berori euskeraz:

«Jaunak, berandu da ta *BA-noa*».

Baiña, *baietz-tasunori* ezta agertzen or, beste esakun batzuetan baizen gogor edo indarkor; erderazko

(A) esakun ořek, ez leuke ondo artuko, beraz, baietz-tasuna garbijen eta bizijen eragertzen dabean itz berezija: SI itza. Ezin esan lei ba berori, egoki edo esan-guria nastau barik, uřengo era onetara:

«Señores, es tarde y SI me voy».

Aor ba erderazko esakun bat, berořen azentu-unea baietz-tasunian eroan ařen, SI baietzgarija ezari ezin leikijona.

Ikusi daigun orain beste gertakun bat. Egin daigun, lagun bateri, erderaz, onetara dirautsagula:

«Fulano, creo que tú no vas hoy a casa».

eta berak onetara erantzuten deuskula:

«SI me voy».

Azkenengo esakun onetan ere, jakiña, aditzaren baietz-tasunak daroa azentu-indařa. Baiña emen, baietz-tasuna azkozaz gogořago agertzen da; SI baietz-gařijori ezin kendu leijo esakunoni beronen jas eta indař guztiija galdu-erazo barik.

Ořa or bada erderazko esakun bi (A) ta (B); bijok daroie azentu-unea aditzaren baietz-tasunean; baiña lenengoak eztau nai SI itz baietz-gařirik, eta bigařena bařiz ezta gauza bera barik.

Ořetariko esakun baietz-tijok, bi taldetan pilokatu geinkez ba: *indarķořak*, erderaz SI baietz-tija eskatzen dabeenak, talde baten; eta bestean, *indarķor ezfiranak*, erderaz SI baietz-tijori nai eztabeenak.

Azterkatu daiguzan orain euron ordęzko euskerazkoak.

III

Zuzen-ere, zeregin ori, Eguzkitza jaunak berak damosku, erdi-eginda, bere idatz-lanian.

BAI itza, aditz-iribijatu aurrean, osorik daroien euskal-esakunik geijen erakutsi nai izan deuskularik, batu difu bertan, bere betiko begi-zofoztasunez, ofetariko esakun berarizko ta erikoi oifuenok. Eta ¿zer gertatu da? Ba oro dirala (B) letria alboan imini deutsagun erderazkoaren klasetakoak; oro dirala erderaz SI itza eskatzen dabeen eta guk *indarkor* izenaz berezi difugun taldekoak.

Diñogunau onduteko erderaratu daiguzan banan-banan, Eguzkitza jaunak agerturiko BAI osorik daroien esakunok. Lenengo, bere idatz-lanaren 4gn. ataleangoak egingo difugu.

Ona emen Lardizabal-gandik artuta agertzen deuskuna:

«Orain esatera nuana *BAI dala* polita».

¿Zelan erderatu esakun ori? Ona emen itzez-itz:

«Lo que voy a decir ahora *SI que es bonito*».

Aor dakusgu garbi: Lardizabal idazleak, aditz iribijatu aurian, BAI osorik imini ebanaren orde, erdereak ere SI indarkoia eskatzen dau, ta bearbeareko bezela.

Bardin-bardin gertatzen da Eguzkitzak agertzen deuskun Urzuno-ren urengo esakun onetan ere:

«Orixe *BAI dala* edera».

Ona emen berori erderaz.

«Eso *SI que es hermoso*».

Euskeraz BAI itzaren orde, erderaz SI indarkoia of ere.

Altube-rena (neurea) dala ta erakusten deuskuna ere, ofetarikoxea da; ikusi:

«Ementxe *BAI egin dogula*».

Au ere, onetara erderatu bear izango geunke:

«Aquí *SI que lo hemos hecho*».

Aor ba, Eguzkitzak agerturiko BAI osorik-dun iru esakunok, erderaz ere SI eskatzen dabeenen anai diriala erakutsifa (1).

Eguzkitzak, aifaturiko bere idatz-lanean, lengo esakunok baiño gorago (2gn. idatz-atalian) BAI-dun beste esakun batzuk ere agertzen difu; eurok *alkar-izketa* erazkoak dira.

Ona emen ofeetarik lenengoa:

«—Oingo etori da, ba?—*BAI da etori*».

Esakun bikoitz ori ere erderaratu nai badaigu, euskeraz BAI dan tokijan, erderaz SI iminita izango da; onan:

«—Pero, ha venido ya?—*SI ha venido*».

Ufengo agertzen deuskun esakun bikoitza, auxe da:

«—Zeu Nabarniz'en izan zara.—*BAI naz*».

Ori ere, erderaz, onetaraxe, SI ta guzti, esan,bear izango geunke:

«—Tú (parece que) has estado en Nabarniz.—*SI he estado*».

Bardin, erakusten deuskuzan beste bijak ere; ona emen eurok:

«—Edeña da gero au!—*BAI da*».

(—Cuidado que es hermoso esto!—*SI lo es*).

(1) *Anaijegi*, gure ustez. Euskerazko BAI-dun iru esakunok, eta ofeen antzeko orok (geuk ere ifioiz erabili izan afen) erderatik itzez-itiz artuak dirudije. Askoz ere euskerazkoago dira eurok (efikoiago bere bai noski) beste era onetara aldatuta:

«¡Orain esatera noana BAI, BAda polifá!»

«¡Orixe BAI, BAda edefa!»

«¡Ementxe BAI, egin dogu!»

«—Gaiztoak dira gero eurok!—*BAI dira*».

(—Cuidado que son malos éstos!—*SI lo son*) (1).

Aor ba garbi-garbi: Eguzkitzak agerturiko esakunoen aditz-iribijatu aurreko BAI ori, erderaz toki bardiñean imini oi-dan SI itzaren anai-anaija da; ta au (ikusi dogu gorago) ezta erabilñen, esakunaren baitza indarkoñ danean baiño.

IV

Baiña oñeik, baietz indarkoñ-dun esakunok, bera-rizkoak diralako, gitxi-gitxi erabili oi-dira, osterantzekoan aldean.

Oñegaiñik, Eguzkitzak erakutsi deuskuzan esakunok berofi belarñiratu eutsoezan lagunak eurak ere, askoz sarñijagotan erabiliko dabe, aditz-iribijatu aurreko itz ori, *indarkoñ ezta*n eratarā: BAI ordeñ BA. Bardin egiñen dabe, berak aifaturiko idazleok ere (Lardizabal, Uruzuno, Azkue ta Altube'k); ta au eñez-eñez ondu leiñeke.

Itz bateñ: aditz-iribijatu aurreko baietz-garñi laua (*indarkoñ ezta*na), Euskaleñi *gutzijan* eta *beti* bardin-bardin erabilñen dau eñijak: BA eraz, I barik.

Beste I ta guztizko BAI ori, esakun indarkoñ bera-rizko batzuetan baiño eztañ erabilñen eñijak (2); eta

(1) Ementxe ere, goragoko beste iru BAI-dun esakunai buruz esan doguna ber-bera diñogu. Azkenengo lau BAI-dun esakunok ere beraz (toki gitxi batzuetan baiño erabilñjak ezñiraneñ gaiñera) guztiz erdel-useiñdunak dirudije. Ona emen eurok euskerazkoago, ta miñ bidar Euskaleñijan zabalago bizi diran eratarā aldatuta:

«—Oingo etofi da ba?—BAI, etofi da».

«—Zeu Nabarnizen izan zara.—BAI, izan naz».

«—Edeñ da gero aul!—BAI, BAdā».

«—Gaiztoak dira gero eurok!—BAI, BAdira».

(2) *Eñijak erabili* diñogu, goragoko idatz-bañeneko oarpen bijetan, erabilñe ofen laburpen eta gure ustezko erdel-useiñtasuna erakutsi dogun añen Baiña ezteñsagu biñ-euñsñen emen gure uste oferi: batetik gure idatz-lan onen erakus-burua ori eztañlako, eta bestetik gure uste ori, lendik ere luzeegi diñugun eztañbadaok luzeagotuteko galñzat iñok artu eztañjan.

euretan, beti-beti, erderazko SI agirizkoa ordeztuten dabelarik.

Baietz indarkoña bear eztaben euskerazko esakunai BAI itza osorik ezartea, erderazko bardiñai SI iminfea baizen gramatikaz-kontrakoa da beraz.

Euskaldunoi onetara itz egifeak:

«Aifa, ¿BAI zatoz neukin?»

«Neu ere BAI noa»

«BAI dakit zu BAI zoazana»

eta erdaldunai beste onetara egifeak:

«Padre, ¿SI vienes conmigo?»

«Yo también SI voy»

«SI sé que tú SI vas»

bitzui bardin zamar minduten deuskuez belaríjok; eta guri bezela bardin, euren eretzi-meretziz belaríjak eziña ta nastabijauta eztiñuen benetakoko euskaldun orori ere.

V

Erantzunda dogu ba, idatzi dogun guztijaz, goragoko Eguzkitzaren ifauna: «Batzuetan onela (BA) ta urangoan bestera (BAI) zegaiti esan bear ete dogun» iñoan berak; ba aor gure erantzuna: *ikurpen bardin-bardiña eztabeelako*.

Erderaz, baietz-tasun indarña, maila biñan agertzen dabe urango esakunok:

Indarkoñ ez tiranak

Me voy

Lo veo

Indarkoñak

SI me voy

SI lo veo

Indar-maila oñei erantzuteko, euskeriak urango esakunok diñu:

Inaarkoř eztiranak

BAnoa
{ BAdakust
{ Ikusten dot

Indarkoř gitxi entzunak *Indarkoř asko entzunak*

BAI noa	BAI, BAnoa
{ BAI dakust	{ BAI, BAdakust
{ BAI dot ikusten	{ BAI, ikusten dot

Bigarren pīlokuok (*indarkoř gitxi entzunok*) baka-rik artu ontzat, eta beste pīlo bijetako BA-dunok (miġa bidar zabalago bizi ta geijago entzuten diria-nok) baztartu ta erabili nai ez izatea, euskal-gramati-kiari egin leijon kaltekeririk andijenetarikoa litzateke, gure ustez.

Altube.